

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Ogasunak 200.000 aitorpen izapidetu ditu 2013ko Errenta eta Ondare Kanpainaren lehen hilabetean

Orain arte 75,6 milioi euro itzuli dira, 124.832 aitorpeni dagozkienak.

Viernes, 02 de mayo de 2014

Nafarroako Zerga Ogasunak 199.234 errenta-aitorpen izapidetu ditu guztira kanpaina hasi zenetik hilabetera, hau da, apirilaren 4tik, 2013ko Errenta eta Ondare Kanpainaren behin-behineko balantzearen arabera. Horietatik 124.832 negatiboak izan dira (itzultzeko), guztira 75.611.137 euro, eta Ogasuna hasi da dagoeneko dirua itzultzen .

Aitorpen gehienak, 178.052, kanpainaren lehen egunean zergadunen eskura jarri ziren proposamen automatikoekin bat datoz, berariaz bertan behera utzi diren 3.322 aitorpenak zenbatu gabe.

Proposamenez gain, 21.180 aitorpen berri aurkeztu dira. Ia erdiak (9.309) 19 erakunde kolaboratzaileek egin dituzte. Errenta-aitorpena aurkezteko bigarren modu erabiliena (5.444 aitorpen) Zerga Ogasunaren bulegoen bidez izan da. Beste 3.829 aitorpen zergadunek aurkeztu dituzte zuzenean Ogasunak Interneten jarri duen bulego birtualaren bidez. Amaitzeko, 2.600 aitorpen Ogasunak zergadunen eta aholkularitza-enpresen eskura jarri dituen programa espezifikoen bidez egin dira. Lehen hilabete honetan aurkeztu diren 21.180 errenta-aitorpen berri horien artean gehienak (% 78) itzultzeko dira.

Noiz eta non egin 2013ko errenta-aitorpena

2013ko Errenta eta Ondarearen aitorpena ekainaren 24ra arte egin daiteke Internet bidez edo aurrez aurre Ogasunaren edo 19 erakunde kolaboratzaileen bulegoetan. Internet bidez egitean, www.navarra.es helbidera joan behar da eta, bertan, "[Aitorpena egin](#)" sakatu. Ondoren, sarbidea ematen duen PINa edo ziurtagiri digitala erabili beharko da.

Errenta-aitorpena aurrez aurre aurkeztu nahi duten zergadunek Ogasunaren sei bulegoetako batean egin beharko dute (Iruña, Barañain, Burlata, Lizarra, Tafalla eta Tuter). Horretarako, aurrez hitzordua eskatu beharko dute [Internet](#) bidez edo 948 505 505 eta 940 505 506 telefono-zenbakietara deituta. Aitorpena 1.200 arretagune baino gehiago dituzten 19 erakunde kolaboratzaileetan ere aurkeztu ahal izango da.